



## **ATAUNGO UDALA**

### **USTATXO ZEHARRERA URA ERAMATEKO LANAK BUKATU DITUGU**

Iazko udazkenean hasi genituen Ustatxo zeharreko baserrietara ura eramateko lanak. Azkoitiko Egurki enpresak irabazi zuen lizitazioa eta abendura bitartean hoditeria pasatzeko lanak egin zituzten. Urtarrilaren amaieran iritsi ziren ura ponpatzeko gailuak, eta harrezkero probak egiten aritu dira. Behin dena ondo dagoela egiaztatu dutenean, martxan jarri dute instalazio berria, eta dagoeneko badute ura Ustatxo zeharreko baserrietan. Obra hau honako erakunde hauen artean finantzatu da: Ur Kontsortzioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza (Leader Programa) eta Ataungo Udala.

Ataunen, 2022ko martxoaren 21ean.